

GORLIZ INGURUA: EUSKAL HERRIKO TXOKO EDERRA

Ekolan

BILBOTIK Ipar-ekialderantz, Bizkaiko Uribe-Kosta eskualdean kokatzen da Gorlizeko Udalerria. Bere hondartzaren edertasun eta zabaltasunak zentru turistiko garrantzitsu bihurtu du Gorliz. Herri honek, aukera interesgarri ugari eskaintzen die bisitari naturzaleei urtaroz urtaro. Neguan Billano Lurmuturreko itsaslabar latzez osotutako paisaiatz goza daiteke; Ermua mendiko landazabal loretsua udabe-

rrian; udan Astondoko baso itsua, edo bestela, hondartza inguruko dunak ere bisita daitezke, eta udazkenean, Butroeko Gaztelu alderantz ibilaldia egin daiteke, non basoko hostoek ibilbidea kolore liluragarritz janzten duten.

Nahiz eta inguru honetan giza presioa handia izan, oraindik flora-eta fauna-barietate handiko ekosistema urtarrak eta lehortarrak daude bertan. Adibidez, dunak, itsaslabarra, Kantauriko artadia, padura, baso mistoa eta urbazterreko ekosistemak bereiz daitezke.

Lehena, Gorlizeko Ospitalearen inguruan, duna-segida dela medio bi zonatan banatzen da: bata itsas pinuz (*Pinus pinaster* ssp. *maritima*), milaska frantsesez (*Tamarix gallica*) eta elkarteko beste espeziez —astobelarrez (*Oenothera biennis*) eta armikaz (*Eryngium campestris*)— finkaturik dagoena. Besteak, itsasotik hurbilago, mugikorra izanik beste espezie hauek ditu: itsa-

*Azkorriagako
gotorlekua*

J.M. GALARZA





*Antxeta
mokogorria*

L.M. URKIZA

sarmika (*Eryngium maritimum*), itsas lilipa (*Pancreatium maritimum*), *Festuca juncifolia* gramineoa, itsas esnebelarra (*Euphorbia paralias*) eta itsasotik oso hurbil dauden hareak kolonizatzen dituen hareondokoa, *Amophila arenaria* gramineoa.

Halaber, Billano Lurmuturreko bidean barrena, Astondotik Landaluzeraino itsas aldean agertzen diren labarrek, itsas ikuskizun xarmangarria eskaintzeaz gain, berezko landare-espezie ugari dute: labar hauen maldak, irasail heliofiloz (*Pteridium aquilinum*) eta espezie nagusizat ainarra burusoila (*Erica vagans*) eta otabera arrunta (*Genis-*

ta hispanica) duten kostaldeko txilardiaurrez eta txilardiz estalirik daude nagusiki. Lurra zertxobait azidoagoa denean, beste espezie batzuk agertuko zaizkigu: otea (*Ulex europaeus*), ainarra arrunta (*Calluna vulgaris*) eta ainarra purpura (*Erica cinera*) esate baterako. Itsaslabarreko oinaldeetan, gazitasunaren aldakuntzari ongien egokitzen zaizkion espezieak aurkituko ditugu: *Festuca rubra* gramineoa, plantaina (*Plantago maritima*), eta abar...

Labar hauetan formazio geologikoetan berezietariko bat aztertzeko aukera izango dugu; Flysch

A. PEROSANZ



*Astondoko
dunak*



*Billano
irla*

J.M. GALARZA

beltza alegia. Hau, lutita, harearri eta konglomeratuzko geruzez osaturik, itsaspeko ingurune sakonean sortutakoa da. Bestalde, itsaslaba-rreko kaletan kostaldeko hegazti itsastarrak ikus daitezke, hala nola ubarroi handia (*Phalacrocorax carbo*), ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax austotelis*), txenada arrunta (*Sterna hirundo*), kaio hauskara (*Larus argentatus*), antxeta mokogorria (*Larus ridibundus*) eta abar.

Astondon eta Billano Lurmuturreko eta Ermua mendiko basotoetan Kantauriko Artadi Kaltzikola daukagu. Aspalditik, gehienbat egurretarako eta ikatza egiteko ustiatzeagatik jasan duten atzerakada dela eta, baso-egitura zarratua eta trinkoa eratzeagatik berde ilun koloreko zona hauek izugarrizko balio botaniko, faunistiko eta paisajistikoa dute gaur egun. Komunitate honetako espezie bereizgarriak hurrengo hauek dira:

- Artea (*Quercus ilex*), zuhaitz hostoiraunkor, hostozabal eta altuera handikoa, 20 m-raino iritsi daitekeelarik, nahiz eta maiz zuhaiska eran aurkitu. Hostoak itxura aldakorra eta kolore berde iluna izanik, larrukarak dira.
- Gurbitza (*Arbutus unedo*), udazkenean zabaltzen diren lore zuridun zuhaitza. Fruituak helduz doazen neurrian hori-koloretik gorri distiratsura pasatzen dira; jan daitezke, baina ez dira zapore onekoak.
- Endalaharra (*Smilax aspera*), lore zuri-horixkak eta fruitu beltzak edo gorriak dituen eta 15 m-ko altuera lor dezakeen arantzez hornituriko landare igokaria da.

Inguruko zelaiak mugatzen dituzten zuhai-xka-mendelen asoziazio honetako beste espezieek —gortxu hostozabalak (*Phyllirea latifolia*), txorbeltzak (*Ramnus alaternus*), arkakaratsak (*Rosa serpen-*

vens), ruscok (*Ruscus aculeatus*), legeltxorrak (*Lentiscus ...*) eta abarrek— adierazten dutenez, artadi kaltzikolaren banaketa askoz handiagoa izan zitekeen gizakiak parte hartu izan ez balu. Mendetan zehar baso hauek batipat egurretarako ustiatu direnez gero, gaur egun Gortizeko paisaian sakabanaturik ikusten diren basotxo anderatu edo degradatuak dira. Hala eta guztiz, baso hauek zolua babesten eta hobetzen dutelako dira garrantzitsuak.

Padurak (Plentziako itsasadarrean, Gandia auzotik gertu, Junkeran), gazitasun handira eta istil periodikotara moldaturik dauden espezieak ditu. Ekosistema honek duen landare-asoziazioari esker, habitat honetan hegazti urtar asko ikus dezakegu. Esate baterako: lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), lertxuntxo txikia (*Egretta garzetta*), txirri arrunta (*Calidris alpina*), kaio hauskara (*Larus argentatus*), eta abar... Padura hau, nahiz eta zaba-

A. PEROSANZ

Padura



lera laburrekoa izan, oso ondo kontserbaturik dago. Itsas marearen eragin handiena jasaten duten tokietan *Spartina maritima* gramineoa hedatzen da. Bere hedapen zabalgatik ia zuhaiska-formako halofitoen zonak nabarmendu egiten dira. Itsasgoraren mailaren gaineko lehenengo lerroan kokatzen den asoziazio honek itsas getozka (*Halmione portulacoides*) espezie karakteristikotzat du. Honekin batera, ondorengo beste espezie laguntzaile hauek ditugu: belar gazia (*Salicornia ramosissima*), *Inula erithmoides* konposatua, *Sarcocornia fruticosa* kenopodiaceoa, eta abar... Atzekaldean, marearen noizbehinkako istildura dagoen lekuetan beste zero bat eratzen da (ihiak nagusi direlarik) eta maila hidrikoa jaisten den tokietan milaska frantsesa (*Tamarix gallica*) ikus daiteke.

Bestalde, urbazterreko basoak, haltza nagusi delarik, Butroeko ibaiko toki batzuetan galeri egiturak era-

Primula elatior



EKOLAN

tzen ditu. Oraindik ibaibazterreko ekosistemaren espezie bereziak ikus daitezke. Adibidez: haltza (*Alnus glutinosa*), sahatsa (*Salix atrocinerea*), urritza (*Corylus avellana*)... Zuhaiak eta belar-estratuetan beste espezie hauek ditugu: San Jose lorea (*Primula elatior*), suge-belarra (*Arum italicum*), urrebotoia (*Ranunculus repens*), ezpatabelarra (*Carex pendula*), azeri buz-tana (*Equisetum sp.*), endalaharra (*Smilax aspera*)... Ingurune honekin erlasionaturik dauden hegaztiak ikusteko aukera ere izango dugu: lumaje beltzezko uroiloa (*Gallinula chloropus*), moko gainean gorri-nea duelarik; martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), moko luzedun hegazti txikia, kolore urdin eta laranja-tatuak dituelarik; oso lotsatia eta urpean luzaro iharduteko gai den txilinporta txikia (*Podiceps ruficollis*), buztanikara zuria (*Motecilla alba*), buztanikara horia (*Motecilla cinerea*), txilinporta txikia (*Podiceps ruficollis*) eta abar. Anfibioren artean, igel arrunta (*Rana perezi*), apo arrunta (*Bufo bufo*) eta txantxi-ku iberiarra (*Alytes obstetricans*) ditugu. Narrastiak ere aurki ditza-kegu: suge gorbataduna (*Natrix natrix*) eta ursugea edo suge biperakara (*Natrix maura*) adibidez. Suge biperakara 80 cm-ko luzera izan dezakeen ofidio urtarrak da. Eraso sentitzen duenean mehatxu egiten du gorputzak "S" itxura hartuz, burua zapalduz eta triangelatuz eta bide batez usain kiratsua ekoiztuz eta putz eginez; beraz, biperaren portaera hartuz. Hala ere, guztiz kaltegabekoa da.

Azkenik, ekosistema ezberdinek Butroeko ibaia inguratzen duten mendi-magaletan, substratu basiko eta zertxobait azido diren zolu eutro-

foetako landare-espezie tipikoak aurkituko ditugu. Espezie hauek baso misto hostozabaleko ekosistemakoak dira, bertan haritz kankaduna (*Quercus robur*) espezie nagusi delarik. Honekin batera beste espezie laguntzaile batzuk ere baditugu: lizarra (*Fraxinus excelsior*) eta gaztainondoa (*Castanea sativa*), urritza (*Coryllus avellana*), astigarra (*Acer campestre*) eta abar. Zuhaiak-geruzan beste batzuen artean honako espezie hauek ditugu: zuhandor gorria (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta abar. Eta belar-geruzan: *Polystichum setiferum* eta *Dryopteris affinis* iratzeak, erratza (*Ruscus aculeatus*), bioleta (*Viola sylvestris*), urrebotoia (*Ranunculus nemorosus*) eta abar. Gorlizen zorritzarrez, Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezalaxe, ekosistema hauek pinu eta eukalituek ordezkatu dituzte.

Azkenik, ibilaldia Butroeko Gaztelu inguruan dauden basozelaietan amaituko dugu. Gaur ikus dezakegun eraikina, Butroeko jaunen ondorengo zen Torrecilla-ko markesak bultzata, Cuba-ko markesak eraiki zuen XIX. mendearan amaieran Butroeko jaunen dorretxea zegoen lekuan (VII. mendekoan zen). Oraindik ere antzinako harresiaren dorre batek zutik dirau. Antzinako dorretxearekin zerikusirik ez duen gaztelu erromantiko hau, garai hartan oso preziatua zen neogotiko estiloko da. Gaztelua inguratzen duen lorategi ikusgarrian atzerritik ekarritako zuhaitz galantak (zedroa, magnolia, nekosta, palmondoa...) espezie autoktonoekin (haritz, hagin, gaztainondo, lizar, haltz etab.) nahasten dira.

